

2008-09 ikasturterako proiektu nagusiak

Ikasturteko proiektu nagusiak dira:

1. Hobekuntza Sistema. Kalitatea Hezkuntzan.
2. Hizkuntza Normalizazio Plana. 2006-2010 egitasmoa.
3. HBEP/Hezkuntza Berariazko Esku-hartze Proiektua.
4. IKT ikastetxe eredu proiektua.
5. Hizkuntza Trataera Bateratua. HTB

1. Hobekuntza Sistema. Kalitatea Hezkuntzan.

Proiektu garrantzitsua da instituturako.

Helburuak

Aurtengo ikasturtean PR02 "Irakatsi eta ikasteko prozesua" jarraitu eta nahiko osatua uztea izango litzateke helburua. Aurrena, programazio-azpiprozesua zehaztuko genuke. Eta ondoren tutoretza- eta orientazio-azpiprozesua

Programazioak ikastetxean zehaztutako eredura egokituko ditugu eta bertan puntu hauek zehaztuko ditugu: irakasgaiaren helburuak, edukiak eta aurreikusitako jarduerak (sekuentziazioarekin, iraupenarekin, metodologiarekin eta baliabideekin) eta ebaluazio irizpideak. Hau dena, irakaslearen koadernoan islatuko da. Koadernoaren erabilera nolakoa izango den ere aurten kalitate programaren barruan landuko da.

Azpiprozesu honek, ikastetxean ematen diren kurtso bakoitzeko irakasgai guztiak hartu beharko ditu, taldeko tutoretza barne.

Tutoretza eta orientazio azpiprozesuan dokumentuen bidez ikastetxean ematen ditugun mailen eta indarreko legediaren arabera, zehaztuko ditugu banakako tutoretzako jarduera guztiak.

Jarduerak eta tenporalizazioa.

Proiektu honen arduradunek markatutako jarduerak eta tenporalizazioa jarraituko ditugu.

Aurreikusten diren partaideak.

Santiago Sesma, Lourdes Etxeberria, Gemma Úcar eta Miren Abene Arriola.

Ebaluazioa eta lorpen-adierazleak.

Ikastetxeak azpiprozesu bakoitzean zehaztutako onarpen-irizpideen edo kalitate-helburuen arabera.

2. Hizkuntza Normalizazio Plana. 2006-2010 egitasmoa.

Proiektu honen helburua: eguneroko harremanetan euskararen erabilera sustatzea da. Helburu hau aurrera eramateko 05-06 ikasturtearen amaieran aurkeztu zitzaion klaustro eta Eskola Kontseiluari egitasmo eta onartua izan zen. Honen arabera jokatuko du ikastetxeak 08-09 ikasturtean zehar.

3. PIEE/Hezkuntza Berariazko Esku-hartze Proiektua

2. mailan ikasle batzuekin proiektu berri bat martxan jarriko da. Egitasmo honetan matematika, natur eta teknologia arloak, proiektuetan oinarritutako metodologiaren bidez landuko dira.

4. IKT ikastetxe eredu proiektua

Hiru arlo landuko dira:

- Irakasleen formazioa.
- Azpiegituren hobekuntza
- IKTen erabilera gelan eta ikastetxearen funtzionamenduan.

Proiektuaren helburua irakaskuntza prozesuan baliabide digitalen erabilera bultzatzea da.

5. Hizkuntza Trataera Bateratua. HTB

Ikasturte honetan DBH 2. mailan eta ofizialak diren bi hizkuntzetan material eta irizpide bateratuak erabiliko dira.

Helburuak

- Hizkuntza batean (euskara-gaztelania) lortutako hainbat gaitasun eta ezaguera beste hizkuntzara transferitu.
- Oinarrizko hizkuntza gaitasunen garapena lortu.
- Ikasleei hizkuntza horietan komunikazio testuak, idatzizkoak zein ahozkoak, ekoizteko aukerak eman.

Landaberri BHIko zuzendaritza